

AUZOZ AUZO

Intxaurreondo



Neska futbolari asko auzoan

Inoiz baino neska gehiago ari da aurten Intxaurreondo klubean. Talde nagusia ez ezik, gaztetxo mailan bi talde osatu dituzte.

Gladys Villalba

Iazko denboraldi amaieran, Intxaurreondo iragarkiak jarri zituzten Donostiako zenbait auzotan, neska taldera erakartzeko. Taldeko kide Jose Mari Martinek azaldu digunez, neska batzuek iragarkia ikusi eta taldean izena eman zuten. Aurten 21 jokalaririk inoiz baino gehiago ari dira talde nagusian,

inoiz baino gehiago. Beste bi talde ere osatu ditu Intxaurreondo gaztetxo mailan. Aurreko urteetan 16 urtetik gorako neskek jokatzen zuten futbol taldeetan. Aurten, baina, Gipuzkoako Futbol Federakuntzak 12 eta 15 urte bitarteko neska maila sortu berri du, eta Intxaurreondo bi talde ditu bertan. Hiru taldeak kontuan hartuta, 50 neska inguru ari dira aurten futbol mailan Intxaurreondo klubean, gehienak auzotarrak.

Talde nagusia erregionalean

Talde nagusia mailaz jaitsi zuten joan den denboraldian.

Hortaz, aurten erregionalean ari da. Dena den, taldeak gogotsu ekin dio denboraldiari. Maika Gomez kapitainak esan digunez, "iaz min hartuta izan nintzen denbora luzez, beraz, aurten ahalik eta partida gehien jokatzeko gogo izugarria dut. Neska gazte batzuk lehen urtez ari dira taldean, hortaz, zelaia neurria hartu behar diote". Kontuak kontu, bikain hasi dute denboraldia: lehen jardunaldian Lesakako Bete Gazte taldea gainditu zuten 0-5 eta bigarren jardunaldian Aierri 2-0 irabazi zioten.

Berriro Bidebietara?

Intxaurreondo duela 12 urte sortu zen. Lehen urteetan Bidebietako Jasonebaso futbol zelaian entrenatu eta bertan jokatzen zituen etxeko partidak. Ondoren, Bidebietako hartxintza utzi eta Herrerako belar artifizialeko zelaira joan ziren. Hemendik gutxira, baina, Bidebietako Jasonebasoko berritze lanak amaituko dituzte eta Intxaurreondo bertara itzuliko direla uste dute. "Herreran urte batzuk daramatzagun, eta gustura jokatzen dugu bertan", dio Maikak.

Loiola

"Pantxa" hil da

Joan den asteartean, Pantaleon Egiguren "Pantxa" zendu zen, 88 urte zituela. "Pantxa" oso ezaguna zen auzoan, batez ere Loiolatarrak elkarteko danborradaren sortzaileetako izan zelako. IRUTXULO berarekin mintzatu zen urtarrean. Hona hemen "Pantxa" k Loiolatarrak-eko danborradaren sorreraz kontatu ziguna: "1955eko San Sebastian bezperan, elkartean afaltzen ari ginela, Loiolan danbor hotsak zabaltzea otu zitzaigun. Nik, garai hartan, Calber enpresan lan egiten nuen; bikarbonatoa gordetzeko kartoi-zoko kutxak bildu eta danbor moduko batzuk egin genituen. Ondoren, sukaldari jantziak hartu eta kalera ateraginen" Goian bego.



Decoraciones

- Parketa eta dornadurak
- Mota guztietako lurzorruak
- Hormetako estaldunak

LIVOS Produktu naturalak
(Pintura, argizari, olioak, etab...)

GROS San Frantzisko, 19 behea ☎ eta faxa: 943 27 85 05

AKTORE formakuntza osoa

2003/04 ikasturterako matrikula epea zabalik

1. maila: 11 ordu astero
2. maila: 15 ordu astero (azken plazak)

A E T Informazioa: 943 423376
Salamanca pasealekua 14, 4. bulegoa 20003 Donostia

Argitalpen honen edizioan lankide:

 **kutxa**
gizarte ekintza